ARANTXA BERNARD (Laudatio)

Gure Zuzendaritza Batzordean ohorezko bazkide izateko aukeratu behar genituen pertsonei buruzko hausnarketa ireki genuenean, oso argi izan nuen zuk horietako bat izan beharko zenukeela. Zu eta gure ekitaldi maiteenetako bat, Zarautzen Zientziaz Blai, lotzen ditugulako.

Zarautzen Zientziaz Blai ideia bezala 2014ko udaberrian sortu zen, gure ibilbidearekin hasi berritan. Guretzat antolaketa-erronka handia izan zen, baina lortutako emaitzak merezi izan zuen. Modelo Aretoa neska-mutilez, paper eta boligrafoz eskuetan beteta ikusi genuenean, herriko beste gazte batzuen ikerketa-proiektuak entzuten, pentsatu genuen pena merezi izan zela egindako lan guztia. Herriko gaztetxo eta nerabeak ohartzen zientzia eta ikerketa ez zela zerbait urrutik gertatzen den zerbait, gertutik baizik ere eta zientzia ikasketak interesgarriak izan zitezkeela. Horiek ziren ba gure helburuetakoak.

Azterketa garaia izanda, ezagutzen ez genuen Antonianotako zientzietako irakasle bat bere klase osoarekin bertaratu zen. Oso hunkigarria izan zen etorritako gazte guztiak eta herriko ikerlariekin egin genuen argazkia eszenatokian, hura bai klasiko batean bihurtu delako. Han ezagutu zintugun eta ordutik, Arantxa, erreferente bat zara guretzat Zarautzen Zientziaz Blai antolatu behar dugunean.

Ohorezko bazkidea izango zinela erabaki genuenean eta laudatio hau egin behar nuela eta, suposatuko duzun bezala, galdezka hasi nintzen zutaz gehiago jakiteko, elkarrekin hartu ditugun kafetxoetatik haratago.

Pasai Donibanekoa zara, bihotzean daramazu zure herria baita bere trainera ere, txibatu digute estropada garaian bandera arrosa jartzen duzula zure balkoian. Kimika ikasi zenuen, baina amaitu eta gutxira Antonianoetan aukera atera zitzaizun irakaslea izateko amatasun baja bat egiteko, eta hori ia 28 urte!!. Hasieran egunero hartzen zenuen **Opel Corsa "mitikoa"** Zarautzera etortzeko, baina urte batzuk beranduago Zarautzera bizitzera etorri zinen eta herrian erabat integratuta zaudela, beste zarauztar bat bezala. Hori baieztatzeko, hona hemen ukaezineko froga batzuk:

- Malekoian pasean joaten zarenean, gutxienez 7 aldiz gelditu behar zara norbaitekin solasean aritzeko.
- Bizikleta sarritan erabiltzen duzu.
- Gutxienez lau kafetegitan zerbitzariek zure izenez tratatzen zaituzte eta ez dizute galdetu behar zer hartu nahi duzun.
- Eta behin betiko froga, definitiboa, hondartzan **TOLDOA** duzula!

Beraz, ez dago inongo zalantzarik, zarauztarra ere bazara. Eta **"hogeita asko"** urte hauetan zaila da kalkulatzea zenbat neska-mutil zarauztar pasa diren zure klaseetatik. Jakina, ezin izan dugu guztiekin hitz egin, baina, bai adin ezberdinetako batzuekin, eta denon erantzunetan hainbat oroitzapen errepikatzen dira eta hona ekarri ditugu guztiekin partekatzeko:

- Lortu duzu Fisika eta Kimika **(FIKI, zuri gustatzen zaizun bezala**) klaseak entretenigarriak izatea. Batek daki zure ikasgeletako batera sartzean zerbait ikasita irtengo zarela bertatik, zure ezagutza ikasle guztiei transmititzeko gai zarelako.
- Zure bronkak "mitikoak" omen direla, baina ikasle guztiek irribarrez gogoratzen dituzte.
- Zientzia munduan suertatzen diren aurrerapenen edo deskubrimenduen inguruko jakinmina pizten saiatzen zarela.
- Ez zara bakarrik zure ikasleekin eta zure lanarekin inplikatuta dagoen irakaslea, entregatutako pertsona bat bakarrik, zure ikasleen alderdi akademikoaz kezkatzeaz gain, haien ongizate pertsonalaz ere arduratzen zarela, esan digute.
- Askotan esan omen duzu zure ikasleengandik ikastea plazer bat dela, eta horrek ikaslearen eta irakaslearen arteko harreman hierarkiakotik alde eginda, errespetuz eta elkarrekiko ikaskuntza eredu batetan kokatzen da.

Gure aldetik, estimatu nahi dizugu gure jardunaldiak gazteei helarazteko egiten duzun ahalegina; ez dakigu nola lortzen duzun **(ez dugu galdetu nahi)**, baina ikasturtero 30 bat ikasle etortzen dira Hidrogeno, Unibertsoa, Argia, Zinestesika edo antzeko gai bati buruzko hitzaldiak entzuteko. Eta gaur egun, ez da ez lan makala. Guretzat benetan oso pozgarria izaten da zure ikasleak hemen ikustea, eta are gehiago galderak egiten dituztenean. Zure lanak asko laguntzen digu gazteei erakusteko zientziak ez duela zertan aspergarria izan behar.

Horregatik, Arantxa, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizugu sari umil honekin.

2021eko urriaren 21a

Ane Bustinduy